



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:
HERRIKIDE ESKOLAPIOAK

Ikastetxearen kodea: 12565
Data: 2023/05/20





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Herrikide Bigarren Hezkuntza lehen Hirukide Bigarren eta aurretik Eskolapioak Ikastetxea Tolosan dagoen zentrua da. 2003 urtetik Tolosako beste bi ikastetxeekin proiektu bateratua eskeintzen zuen, orain dela urte gutxi Jesuitinekin batera soilik.

DBH eta batxilergo eskeintza dugu D ereduan eta egun 400 ikasletik gora ditugu, guztira 17 gelatan banatuta.

Gure familien maila sozio-ekonomikoa ertaina dela esango genuke baina gorabehera handiekin. Egia esan profil anitza da bai ekonomiko aldetik baita sorrera eta hizkuntza aldetik.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Herrikide Bigarren Hezkuntza IKT heldutasun maila aurreratuaren jabe da lehen deialditik. Berrikuntzarekiko eta kalitate pedagogikoarekiko konpromisoak arlo horretan punta-puntakoak izatera bultzatu gintuen aspalditik.

- Kalitatezko Wifi sare bat dugu, eskolako txoko guztietara iristen dena.

- Konektibitate aldetik fibrako bi lotura ditugu. Urtetik urtera handitzen joan gara eskaeraren arabera.

- Hamarkada bat da irakasle bakoitzak bere ordenagailu eramangarria duela.

- Duela hamarkada bat 1x1 proiektuarekin hasi ginen, eta duela 5 urtetik, ikasle guztiek bere gailua dute ikasgelan lan egiteko. Gailu hauek guztiek mantenu

zerbitzua dute baita botikina ere: ikasleari gailua matxuratuz gero beste bat ematen zaio berea konpontzen den bitartean.

- EVA bat dugu (Ikaslagun, Moodle) duela 16 urtetik

- Robotikarekin lanean ari gara ikasgelan, 2010etik proiektu errealak egiten, eta 3D diseinu eta inprimaketarekin 2012tik.

- Duela bost urte hasi ginen liburu digitalak erosten.

- 2018an BIZI proiektua argitaratu zen: DBHko lehen zikloan diziplina arteko proiektuen alde lan egin genuen ikasturte osoan 7 ikasgaitan (astean 13 ordu).

Proiektu honetan, material guztiak digitalizatuta daude gure Moodle plataforman.

- Familia eta ikasleekin komunikaziorako eta ikastetxeko kudeaketarako Clickedu plataforma erabiltzen dugu azken 3 urteetan. Aurretik Alexia plataforma erabiltzen genuen.

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Ikastetxean digitalizazioa prozesu guztietan eta irakaste-ikaste prozesuan daukan garrantzia garbi dago: teknologia digitalak pedagoia eta kudeaketari ekar dakizkioken onurak hortxe daude, nahiz eta padagogi aldetik zuzenki proportzionala ez izan.

Horrek bultzatzen gaitu beste hainbat arloekin batera ikastetxeko antolakuntza eta estrategian kontuan hartu beharreko atala izatea. Aintzinan horrelako teknologiak txertatzea nahikoa argudioa zen gai honekin loturiko "etxeko lanak" txertatuta zeudela esateko baina gaur egun alde aurretik eginiko hausnarketa sakon baten ondorioz idatzitako strategi garbi bat eskatzen du. Estrategia honek hainbat gauza izan behar ditu kontuan:

- teknologien etika
- azpiegiturak
- ekonomia
- giza baliabideak
- pedagogia

Plan honen bitartez lortu nahi ditugu:

- Ikastetxearen egoera ebaluatzea, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilerrari dagokionez.
- Plan Digital batek hezkuntza-erakundearen estrategia digitala planifikatzeko duen potentziala aitortzea.
- Zentroa etengabe ikasten ari den erakunde bat bilakatzea.
- Horretarako, beharrezkoa da digitalki kompetentea izatea.
- Hezkuntza-komunitateko estamentu guztiak inplikatzea ikastetxeetako kultura digitala garatzeko.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Herrikideko Ikastetxeko Plan Digitala ekoizteko hauek dira egin ditugun edo egiten ari garen hurratsak:

1. Lehenik eta behin IPDa kudeatzeko taldea sortu dugu: IKT arduradunak, Ikastetxeko zuzendariak eta titulartasunaren ordezkariak osatzen dute. (2022ko maitza)
2. Ikastetxeko Selfie-a burutu dugu DBHko eta Batxilergoko ikasle gehienei pasata. Irakasleok eta Zuzendaritza taldeek ere pasa dute (2022ko ekaina)
3. IPDa kudeatzeko taldea Zuzendaritzarekin batera adostu dute Ikastetxearen egoeraren analisia, autoebaluazioa eta hausnarketa alegia, hurrengo plan estrategikoan txertatzea. Plan estrategikoaren lanketaren barnean Selfie-tik ondorioztatutako AMIA osatu eta bertatik ondorioztatutako helburuak eta ekintzak zehaztu ditugu.
4. Azkenik hau guztiarekin, IPDa eta Plan Estrategikoa idatzi eta argitaratu dugu.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Plangintza estrategikoari dagokionean, momentu klabean gaude. Herrikiden lau urtetik behin Plangintza Estrategikoa berritzen dugu eta momentu horretan gaude.

2019-2023 plangintza estrategikoa ebaluatzekeo garian eta 2023-2027 plangintza diseinatzekeo unean. Honek ikastetxe guztiko estamentuen hausnarketa bateratu bat dakar. Ikasle, familia, irakasle, titulartasun eta kanpo eragileena. Hainbat bilera, tailer eta jardunaldi egiten ari gara hauek bakoitzarekin eta hemendik dokumentu bateratu bat irtetzea espero dugu, datorren 4 urteetako ildoak marraztuko dizkigunak.

Lau urteko plangintza estrategiko hau, gero urtero, urteko planean zehaztu beharko dugu.

Diseinatzen ari garen Plangintza Estrategiko honetan, IKT arloak, toki estrategikoa jokatu behar du eta jokatu du. Estamentu guztietan azaltzen da, Teknologi berriek gaur egungo eta etorkizuneko hezkuntzan toki pribilegiatua behar duela izan. Urteak daramatzagu hezkuntzan indar handia hartu dutela IKTeek baina esperientzi honetatik ondorio sakonak eta erabilera berriak sortzeko unean gaude. Eta ez alderdi pedagogikoan bakarrik, baita ere komunikazio, kudeaketa eta sustengarritasun arloan ere.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Aurreko ikasturtean (21-22) bukaeran pasa genuen Selfie galdetegia bai DBH eta baita Batxilergoan ere. DBHko kasuan Zuzendaritza taldeko %100ak, irakaslekoaren %95ak eta ikaslekoaren %70ak erantzun zioten galdetegiari. Batxilergoan aldiz Zuzendaritza taldeko %100ak, irakaslekoaren %100ak eta ikaslekoaren %63ak. Horrela izanik emaitzak fidagarriak direla esan genezake.

Emaitzak nahiko onak dira, atal guztietan 3,1etik gora gaude eta batz bestekoa 4aren inguruan dabil. Beste ikastetxeekin ezin ditugu konparatu baina ziur gaude erditik gora gaudela.

Emaitzak gertutik ikertuta zenbait alderdi argiak eta ez hain argiak agertzen zaizkigu:

Oso datu onak lortzen ditugu azpiegitura eta ekipamendutan. Datu hau errealitatearekin bat datorrela pentsatzen dugu. Urte askotan egindako lan eta inbertsioen fruitua da proiektuaren sarreran azaldu dugun bezala.

Lidergoa era beste puntu positibotzat ematen dugu: ikastetxeko zuzendaritza taldearen egonkortasuna eta konpromezua langile nahiz ikasleen bistan dagoela ezin udugu ukatu.

Azpiegiturekin bat egiten duen beste atala laguntza eta baliabide pedagogikoak dira. Bata bestearekin lotuta dago: azpiegituren gainean kokatuta dauden plataformak (Ikaslagun, Clickedu, Google Workspace, Microsoft Teams...) pedagogiari zuzenduta daude eta ikastetxe mailan guztiz hedatuta, onartuta eta babestuta.

Hobetzeko tarte eskeintzen dituzten atalen artean irakasleen etengabeko prestakuntza eta haien arteko kolaborazioa da.

Irakaskuntzako zuzendutako teknologiak oso azkar aldatzen dira. Irakasleen ustezko gaitasun digitalak askotan irakasleei kapazitazio faltan sententzia ematen die. Hauxe askotan ez da guztiz erreala: egia da ikasleek zenbait esparru oso ondo menderatzen dituztela, batez ere smartphone eta sare sozialei dagokionez baina gaitasun digitala ez da hori bakarrik. Honen erakusle ikasle eta irakasleen ikuspegi desberdina irakasleen gaitasun digitala baloratzerakoan: ikaslek beti hobeto puntuatzen dio bere buruari gai hontan.

Hobetzeko marjina ere eskeintzen dute teknologiak irakaskuntzan egunerokotasunean txertatzeko garaian baita ebaluaketan ere. Proiektu honen hurrengo atalean (AMIA) aztertuko den bezala pilpilean dagoen gai bat da. Teknologia ez du beti hobetzen ikaste-irakaste prozesua. Askotan benetako berrikuntza beste uretan bilatu behar da. Agian hau ez da proiektu honetan eztabaidatu behar den gaia, baina horte dago.

AMIA analisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)

Ikasleak irakasle-familiak baina askoz ere aurreratuago doaz.

Zaila da guk ikasleen erabilpena kontrolatzea, modu desegokiaren erabilera.

Konpetentzi digitalean hobetzea, beste konpetentzietan ahultzea ekar dezake.

Koordinazio falta plataforma ezberdinetan, irakasleok ezd itugu berdin erabiltzen. Ikaslagun eta Clickedu batez ere.

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)

Erabilera desegokiak: ikasleen atentzioa, adikzioak... sor dezake.

Gizartean eta eskolako erabilera asko igo da.

Ikasleak klasean ordenagailuetan galtzea

Adimen artifi lzialaren eragina eta erabilera

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)

Baliabide digital asko ditugu: ordenagailu bana, wifia, telebistak....

Moodle plataforma, clikedu

Gure irakasleen formazioa eta gaitasuna ona da orokorrean.

Plataforma potenteak dauzkagu eta asko erabiltzen ditugu

Aukerak (kanpo-faktoreak)

Formazio aukera: DigCompEdu egitea

Gizartean zabaldua dago eta horrekin batera goaz abantailak aprobetxatzen.

Autoebaluazioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko

Azpiegituretan inbertitzen jarraitu behar dugu baina iparraldea galdu gabe. Aitzindariak izatearen arriskua horixe da. Iparraldea finkatu behar dugu lehenik. Teknologia zertarako, nolako teknologia nahi dugu, tresna bat dela jakinik baina neutrala ez dela ere kontutan hartuta. Honek zein teknologia eta zein neurrian nahi dugun baldintzatzen digu. Formakuntzaren apustuari eutsi behar diogu baina ikastetxean daukagun antolaketa aprobetxatuz. Askotan kanpora jotzen dugu eta bertan dauzkagu erabilera adibide asko. Askotan ere ez ditugu ikastetxe barruan daukagun indarguneak kaleratzen. Teknologia gaian ere hauxe gertatzen dela iruditzen zaigu. Daukagun potentzia aprobetxatu behar dugu kanpoan ezagutarazteko.

Ahuleziei aurre egin aukerak aprobetxatzeko

Teknologien erabilpen desegokiari aurre egiteko aukera asko ditugu eta hau bihurtu daiteke gure aldeko esparrua. Gizartea gero eta sentikorragoa da gai honen inguruan. Pantailekiko adikzioen maila gero eta altuagoa da eta gazteen pribatutasuna bermatzea kalean dauden gaiak dira; guretzako aukerak ere. Argi izan behar dugu ere zein dan nahi dugun ikasleen irteera profila. Horri begiratu behar diogu eta ez modei. Batzutan teknologia helburu hauen mesederako izan daiteke eta beste batzutan ez. Ikastetxean erabiltzen ditugu plataforma ezberdinen erabilpenan inguruan gogoeta sakon bat egin behar dugu, alde pedagogikoari begira eta baita etorkizuna eta gizarteak eskatzen digunari begira.

Indarguneak optimizatu mehatxuak indargabetzeko

Ikastetxean daukagun egitura aprobetxatu behar dugu teknologien erabilera desegokiari aurre egiteko. Honetarako koordinazioa funtsekoa da. Historiako beste momentutan bezala, teknologiak ekarri dituen berrikuntzak aprobetxatu behar ditugu ikaslearen irteera profilan laguntzeko. Horrela izan da beti eta aurrerantzean ere jarraitu behar du. Adimen artifiziala ikaskuntzaren alde ekar dakizkigun onurak aprobetxatu behar ditugu.

Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

Teknologi digitalen batzorde bat antolatzea komenigarria iruditzen zaigu gai guzti hauek behar bezala bideratu eta zaintzeko: koordinazioa, ipar-orratza, aholkularitza... Batzorde honek ere Herrikide HH eta LHrekin harremanak izan beharko lituzke helburu berak finkatzeko. Komenigarria litzateke ere probintzi mailan ere antzeko bat sortzea.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua

Teknologi digitaleko batzordea eratu

Deskriptorea	Epea	
LG 3.1 Inplementazio-planaren inguruan elkar aditze eta konpromiso bat dago	2023/10/31	
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 3.1 A1 Ikastetxeak irakasleek parte hartzeko egitura bat zehaztu du, bere estrategia digitala garatu	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Batzordekideak proposatu	Zuzen taldeko bileran	Zuzen taldea	2023/09/30	Detektatua
Lehenengo bilera ospatu	Koordinazio orduak	Zuzen taldea	2023/10/30	Detektatua

Helburua

Teknologiaren etikaren inguruko ausnarketa lideratu (pantailei adikzioa, teknologia noiz eta nola...)

Deskriptorea	Epea	
LG 3.7 Agerikoa da politika eta norabidea gainbegiratzen direla	2023/11/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 3.7 A1 Ikastetxeak bere oinarriko dokumentazioan (Urteko Plana, IHP) sartzen ditu irakasle-taldeak	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Teknologia Digitalaren inguruan dekalogo bat idatzi	Batzordeko orduak	Batzordea	2023/11/29	Detektatua

Helburua

Estrategia digital bat diseinatu HH eta LHko etapekin batera.

Deskriptorea	Epea	
LG 3.7 Agerikoa da politika eta norabidea gainbegiratzen direla	2024/06/28	
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 3.7 A1 Ikastetxeak bere oinarriko dokumentazioan (Urteko Plana, IHP) sartzen ditu irakasle-taldeak	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
HH eta LHko arduradunekin bilerak egin adostasun batetara iristeko	Batzordeko orduak	Batzordea	2024/06/27	Detektatua

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua

Teknologiaren etikaren inguruko ausnarketa egin, ikaslearen irteera profilatik abiatuta (pantailei adikzioa, teknologia noiz eta nola...)

Deskriptorea	Epea	
II 1.2 Lehenengo mailan jartzen dira online inguruneetako segurtasuna, arriskuak eta portaera arduratsua	2024/06/28	
Adierazlea	Mota	Helmuga
II 1.2 A2 Lan-talde bat sortu du eta beharrezkoak diren saioak definitu ditu datuen babesari, identitate	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Teknologia Digitalaren inguruan dekalogo bat idatzi	Batzordeko orduak	Batzordea	2023/11/29	Detektatua

Helburua

Teknologiaren erabilpenean distrakzioak ekiditu.

Deskriptorea	Epea	
II 1.2 Lehenengo mailan jartzen dira online inguruneetako segurtasuna, arriskuak eta portaera arduratsua	2024/02/29	
Adierazlea	Mota	Helmuga
II 1.2 A2 Lan-talde bat sortu du eta beharrezkoak diren saioak definitu ditu datuen babesari, identitate	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Pedagogi taldea eta batzordean artean gaia eztabaidatu eta ondorioak atera	Pedagogi taldeko eta Batzordeko orduak	Pedagogi taldea eta Batzordea	2024/02/28	Detektatua

GP Garapen profesionala

Helburua

Teknologia digitalen inguruko praktika onak klaustroan partekatu eta sistematizatu.

Deskriptorea	Epea
GP 1.3 EGPa lerroturik dago banakako eta antolaketako premiekin	2024/06/28

Adierazlea	Mota	Helmuga
GP 1.3 A1 Ikastetxeak prestakuntza- edo lan-saioak antolatzen ditu irakasleentzat, hainbat interes ped:	Zenbakizkoa	2
GP 1.3 A2 Ikastetxeak prestakuntza- edo lan-saioak antolatzen ditu irakasle-taldearentzat, ezagutza ho	Zenbakizkoa	2
GP 1.3 A3 Ikastetxeak prestakuntza- edo lan-saioak antolatzea, baliabide digitalak sortzeko eta irakaski	Zenbakizkoa	2

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Praktika onak partekatzeko saioak antolatu	Klaustro orduak	Batzordea	2024/06/27	Detektatua

Helburua

Konpetentzia Digitalen zertifikazioan aurrera pausuak eman.

Deskriptorea	Epea
GP 1.5 EGP egiaztatu/ziurtatuak lortzeko aukerak sustatzen dira	2024/06/28

Adierazlea	Mota	Helmuga
GP 1.5 A1 Irakasleei Prestgara, INTEF eta beste erakundetako ikastaroak egitera animatzen zaie.	Ehunekotan	50

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Gaitasun digitaleko hurrengo ziurtagiriak lortu	Klaustro orduak	Zuzen Taldea	2024/06/27	

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua

Konpetentzien ebaluazioa sakondu eta tresna digitalen bidez sistematizatu eta aberastu.

Deskriptorea	Epea
EJ 1.1 Ebaluazio formatiboaren helmena hedatzen da	2024/06/28

Adierazlea	Mota	Helmuga
EJ 1.1 A1 Ikasgaien % ... tan errubrikak erabiltzen dira irakasteko eta ikasteko prozesuetan, ikasleek bei	Ehunekotan	20
EJ 1.1 A2 Ikasgaien % ... tan, ikasleek produktu digitalen ebidentzien portafolioa erabiltzen dute irakats	Ehunekotan	20
EJ 1.1 A3 Ikasgaien % ... tan ikasleek lineako probako teknologiak erabiltzen dituzte, berehalako itzuler	Ehunekotan	20

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ebaluatzeko beste aukerak ezagutu	Klaustroko orduak	Zuzen taldea eta Batzordea	2024/06/27	Hasita (%1-19)

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua

Ikasleen kompetentzia digitalaren atal guztien barneraketa bermatu plan zehatz bat diseinatuz.

Deskriptorea	Epea	
EC 2.6 Ikasleen gaitasun digitala curriculum osoan garatzen da	2024/06/28	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 2.6 A1 Ikastetxearen curriculum-proiektuak irteera-profila, ikasleen gaitasun digitalaren garapenare	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Kompetentzia digitalan ahalduntzeko plan bat egin	Batzordeko orduak	Batzordea	2024/06/27	Detektatua

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua

Probintzi mailan Teknologia Digitalen batzorde baten sorrera proposatu etika digitalaren eta estrategien inguruan eztabaidatzeko.

Deskriptorea	Epea	
EN 1.5 Barne-lankidetzeta eta ezagutzak trukatzeta espero da		
Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 1.5 A1 Ikastetxean teknologia digitalen erabilerari buruzko informazioa eta hausnarketa trukatzeko	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
IKT arduradunen probintzi mailako bilerak edo topaketak antolatu	Batzordeko orduak	Titulartasuna eta Batzordea	2024/06/27	Detektatua

AZ Azpiegiturak

Helburua

Teknologia digitalen batzordearen baitan epe luzerako azpiegituren plan bat eratu. (konexioa, plataformak, gailuak...)

Deskriptorea	Epea	
AZ 2.10 Plan eragile bat dago ezarrita sare nagusirako eta IKTetako oinarrizko zerbitzuetarako	2024/06/28	
Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 2.10 A1 Ikastetxeak dokumentu bat du ikastetxeko espazioak, ekipamendua eta baliabide digitalak	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Epe luzerako teknologia digitalen plan bat egin	Batzordeko orduak	Batzordea	2024/06/27	Detektatua

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua

--

Deskriptorea

Epea

--	--

Adierazlea

Mota

Helmuga

--	--	--

Ekintzak


Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

--	--	--	--	--



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	Teknologi digitaleko batzordea eratu					
LG	Teknologiaren etikaren inguruko ausnarketa lideratu (pantailei adikzioa, teknologia noiz eta nola...)					
LG	Estrategia digital bat diseinatu HH eta LHko etapekin batera.					
II	Teknologiaren etikaren inguruko ausnarketa egin, ikaslearen irteera profilatik abiatuta (pantailei adikzioa, teknologia noiz eta nola...)					
II	Teknologiaren erabilpenean distrakzioak ekiditu.					
GP	Teknologia digitalen inguruko praktika onak klaustroan partekatu eta sistematizatu.					
GP	Konpetentzia Digitalen zertifikazioan aurrera pausuak eman.					
EJ	Konpetentzien ebaluazioa sakondu eta tresna digitalen bidez sistematizatu eta aberastu.					
EC	Ikasleen konpetentzia digitalaren atal guztien barneraketa bermatu plan zehatz bat diseinatu.					
EN	Probintzi mailan Teknologia Digitalen batzorde baten sorrera proposatu etika digitalaren eta estrategien inguruan eztabaidatzeko.					
AZ	Teknologia digitalen batzordearen baitan epe luzerako azpiegituren plan bat eratu. (konexioa, plataformak, gailuak...)					
IB						